

8- Funtsezko aliantzak:

Negozioak funtziona dezan, hainbat eragile behar dira: hornitzaileak, banatzaileak, finantza-bitartekariak, erakunde publikoak eta abar. Kasu batzuetan, aliantzak ere ezar daitezke lehiakideen beste enpresa batzuekin, biek etekinak lortzeko.

Lehenik eta behin gure produktua sortzeko hornitzaileak behar dira, hornitzaile horiek lurraren hezetasun sentzorees, kontrolatzaile elektrikoz eta kontrol balbulaz hornituko gintuzkete, gure produktua sortu ahal izateko. Baina hau ez da izango gure enpresak beharko duen aliantza bakarra, produktua sortu ondoren bezeroengana heltzeko banatzaileak ere behar dira.

Gure sozietate mota sozietate kooperatiboa izango zen, zeren gure enpresa giza harremanak eta interes kolektiboak hobetzera bideratuta dago. Ekonomia soziala osatzen duten sozietatea. Gutxieneko bazkide kopurua hiru dira eta gu la gara(Lon Garitagoitia, Julen Lopez, Danel Badiola, Peru Pereira). Sozietate demokratiko eta berdintasunezkoa da. Pertsona batek boto bat izatea da ezaugarri, beste motek ez bezala, erabakitzeke ahalmena ez da emandako kapitalaren araberakoa. Kapitala gure kooperatiban bazkide izateko 4.000€-koa izango zen. Azkenik, gure legerioa propioa izango genuen.

